

## **5. kapitulua**

**Bakardadeei aurre egiteko  
Gipuzkoako Estrategia:  
ezaugarri nagusiak  
Ezaugarri nagusiak**

## 5.1. Hitzaurrea

Estrategia honen oinarria den bakardadeei buruzko esparru kontzeptuala jaso ondoren, gure inguruneko beste herrialde batzuetan garatutako estrategiak eta bakardadeak jorrazteko esku hartze eraginkorrenen ezaugarriak aztertu ondoren, erabilgarri dagoen literatura zientifikoari esker, eta Gipuzkoako bakardadeekin lotutako egoerak kuantifikatu eta karakterizatu ondoren, kapitulu honetan bildu dira bakardadeei aurre egiteko Gipuzkoako Estrategia hau bereizten edo definitzen duten oinarrizko elementuak. Zehazki, kapitulu honetan zehaztu dira:

- Estrategiaren xedea, ikuspegia eta printzipioak, dagoeneko Oinarrien Dokumentua ezarri dena abiapuntu hartuta;
- Estrategiaren oinarrizko ezaugarriak eta printzipio gidariak, bereziki erakunde arteko artikulazioari dagokionez, hauek Talde Eragile Zabalduaren esparruan eztabaidatu eta definitu direlarik;
- Planeko jarduketak gidatzen dituzten ibilbideak edo jarduketa ardatzak, hauek ere Oinarrien Dokumentutik eratorri direlarik..

## 5.2. Xedea eta ikuspegia

Estrategia honen **xedea** da Gipuzkoa eta Euskadi eraikitzea pertsona guztiek, bakardade egoeren aurrean (egoera horiek aukeratzeko, gogobetegarriago egiteko, alderantzeko edo prebenitzeko), gaitasun eta baliabide pertsonal gehiago izan ditzaten, lotura afektibo, sozial eta komunitario esanguratsuak izan ditzaten eta partaidetza eta gizarte lotura maila handiagoak izan ditzaten. Horretarako, arreta jarri da adineko pertsonengan eta zahartze prozesuetan, baina ez modu eksklusibo edo baztertzailan.

Estrategia honen **ikuspegia** da pertsona guztiek beste pertsona batzuk, egiturak, jarduerak, laguntzak eta tresnak eskura dituzten lurralde eta herrialde batena, baliabide horiek bakardade egoerak prebenitzeko, jorratzeko edo laguntzeko erabili ahal izateko, administrazio publikoen, hirugarren sektoreko erakundeen, enpresa teknologikoen eta bestelako eragileen lankidetzako ekintza itundu baten esparruan, ezagutzan oinarritzen dena eta partaidetzako gobernantza bati eta lankidetzako kudeaketa bati esker sustatzen dena.

## 5.3. Hariak Estrategiaren printzipio gidariak eta oinarriko ezaugarriak

Estrategia honen ezaugarri nagusiak hauek dira:

- **Estrategia mistoa, administrazioen zein erakunde pribatuen eta hirugarren sektorearen partaidetza bilatzen duena.** Hariak Estrategia Adinberri Fundazioak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatzen dute eta izan dira misto eta erakunde artekoak. Erakunde artekoak da bertan parte hartzen baitute, eta bere garapenarekin konprometitu baitira, zenbait maila administratibotako erakundeak –erkidegoko administrazioa, foru administrazioa eta toki administrazioa–; eta mistoa da bakardadearen prebentzioarekin eta jorratzearekin nolabaiteko lotura duten jarduerak, produktuak eta zerbitzuak garatzen dituzten erakunde pribatuen parte hartzea ere bilatzen duelako, irabazi asmoa izan ala ez. Horrez gain, dimentsio anitzeko zeharkako estrategia bat da, izan ere, eguneroko bizitzako zenbait dimentsiori eta administrazioaren zenbait eskumen eremuri eragiten dieten jarduketak ditu barne, hala nola osasuna, etxebizitza, gizarte zerbitzuak, aisialdia eta kultura, garrantzitsuenak aipatzearen.
- **Estrategia orientagarri bat eta, aldi berean, ekintzara orientatua.** Planteatzen den estrategia mistoa da, bestalde, bi helburu osagarri dituelako: lehenik, gidalerroen eta gomendioen esparru bat definitzea, eragile interesdun guztien ekintza zuzentzeko balio duena, esparru kontzeptual eta lehenitasun erkide batzuen inguruan; bigarrenik, izaera bultzatzailea eta eraldatzailea duten

konpromiso eta ekintza proiektu espezifikoak ezartzeko oinarri izatea. Dokumentu hau **esparru estrategiko** bat da, Gipuzkoako bakardadeei aurre egiteko epe ertain eta luzerako jarduketak zuzentzeko, eta **bi urteko Jarduketa Planen garapenari** esker zehaztuko da.

- Ikuspuntu honetatik, estrategia orientagarria da eta, aldi berean, ekintzara orientatua, atxikipen edo lotura maila desberdinak eskaintzendituen, eragile interesdun bakoitzaren borondatearen edo aukeren arabera. Zentzu horretan, estrategia, funtsean, hiru elementuren inguruan egituratzen da –gomendioak, konpromisoak eta proiektu bultzatzaileak–, orientatzeko, konprometitzeko eta eraldatzeko helburuekin, hurrenez hurren.
- Esparru estrategikoaren dokumentu honetan bildu diren gomendioak orientazio eta gidalerro generikoak dira, Estrategiarekin bat egiten duten erakunde eta eragile guztiek garatu ahalko dituztenak, bakoitzak egokitzat jotzen duen moduan, Estrategia honen iraunaldian zehar. Gomendio hauek ez daude eragile jakinei lotuak eta Estrategiarekin bat egiten duten erakunde guztiek gomendio horietako zenbait betetzeko konpromisoa hartuko dute, bakoitzaren izaeraren arabera.
- Konpromisoak, bestalde, neurri edo ekintza zehatzak dira,

eta Estrategiarekin bate egiten duten erakundeek, batez ere erakunde publikoek, horiek betetzeko eta gauzatzeko konpromisoa hartuko dute, Estrategiaren iraunaldian zehar. Ezarritako konpromisoek erakunde eta eragile jakinekin lotura izango dute eta izaera zehatz eta ebaluagarria izango dute. Konpromisoak bi urteko Jarduketa Planetan jasotzen dira.

- Azkenik, estrategiak izaera bultzatzailea edo eraldatzailea duten proiektu zehatzak ere jasotzen ditu. Proiektu bereziak dira, dagoeneko abian daudenak edo indartu edo birplanteatu nahi direnak, eta baita izaera esperimentaleko proiektu berriak ere. Nolanahi ere, proiektu guztiak ebaluagarriak eta eskalagarriak izan behar dira, epe ertain eta luzera Gipuzkoako lurralde osora zabaltzeko modukoak. Proiektu hauek, konpromisoen modu berean, bi urteko Jarduketa Planetan jasotzen dira.
- **Atxikipen boluntarioa eta, aldi berean, loteslea.** Honek esan nahi du Estrategian parte hartuko dutela harekin bat egin nahi duten erakunde publiko zein pribatuek, bakoitzaren eskumenen eta lehentasunen arabera. Atxikipen horigertatzen bada, erakundeek konpromiso lotesleak onartuko dituzte Estrategiarekiko: hau da, konpromiso horien arabera, bat egiten duten entitate eta erakundeek neurri zehatzak garatu beharko dituzte adostutako gomendioak jarraitzeko, bai konpromiso moduan, proiektu bultzatzaile moduan, bi eratara edo bestelako jarduketekin

ere. Gainera, kontuan hartuta Estrategiak jarraipena eta ebaluazioa egiteko adierazleak ezartzea dakarrela, bat egiten duten erakundeek esparru honen barruan abiarazten dituzten jarduketan adierazleak jasotzeko konpromisoa onartuko dute.

- **Estrategian aurreikusitako jarduketan autofinantzaketa.** Erakunde eta entitateek gauzatzen dituzten neurri, konpromiso eta proiektu bultzatzaileak baliabide propioekin finantzatuko dira, hau da, euren aurrekontuen kargura, beraz, Estrategiak ez du finantzaketa mekanismo espezifikorik izango. Edonola ere, Planarekin bat egiten duten erakundeek Adinberrik edo Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen dituzten laguntza deialdi generikoetan parte hartu ahalko dute.
- **Ezagutzaren sorrera, komunikazio eta sentsibilizazioa helburu dituen Estrategia.** Estrategiak eginkizun garrantzitsua esleitzen die ere ezagutzaren arloari, komunikazioari eta sentsibilizazioari. Honela, izaera komunikatiboa dauka eta plataforma edo biltegi bat sortu da partaidetza prozesuan zehar bildu diren jarduketan mapa batekin. Mapa hori etengabe eguneratuz doa. Bestalde, Estrategiak barne izango du komunikazio helburu jakinak ezarriko dituen atal bat, esparru honen barruan garatzen diren prozesuak komunikatu eta ezagutzera emateko ildoekin, ekintzekin eta tresnekin batera.
- **Jarraipen, gobernantza eta ebaluazio mekanismoak.** Estrategia

artikulatu ahal izateko, hainbat gomendio, konpromiso eta proiektu bultzatzailearen inguruan, jarraipen eta ebaluazio sistema bat behar da eta horretarako lidergoaren, koordinazioaren eta gainbegiratze edo jarraipenaren eginkizunak ezarri behar dira. Eginkizun horiek Adinberri Fundazioaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuan esku geldituko dira eta, helburu honekin, Idazkaritza Tekniko bat sortuko dute, eginkizun hauek izango dituenak:

- Estrategiari atxikitako jarduketak eta proiektuak garatzeko laguntza teknikoa eskaintzea.
- Estrategiaren esparruan garatzen ari diren jarduketak identifikatzea eta hauen ezarpena gainbegiratzea, gomendioak jarraitzeko hartu diren konpromisoak betetzen direla ziurtatuz.
- Prozesuen, emaitzen eta inpaktuaren inguruko adierazleak bildu eta eguneratuta mantentzea zenbait proiekturen kasuan.
- Jarraipen eta ebaluazio txostenak idaztea.

Horrez gain, Estrategiaren lankidetzako gobernantzaren esparruan, Talde Eragile Zabaldua mantentzea erabaki da, erakunde arteko eta sektore publiko eta pribatuaren arteko organo gisa, Hariak Estrategiaren gobernantza orokorraren arduraren har dezan. Aldi berean, Gipuzkoako bakardadeen jorrateari buruz diagnostikatzen, partekatzen eta proposatzen

jarraitzeko espazioa ere izango da.

## 5.4. Printzipio eta irizpide orokorrak

Hauek dira Estrategia arautzen duten printzipioak:

- **Normalizazioa eta unibertsaltasuna.** Pertsona guztiok bakardadeekin lotutako egoerak bizi ditzakegula kontuan hartuta eta bakardadeak modu naturalean eta giza esperientzia gisa ulertuta, logikoa da estrategiak baliabide eta aukerak modu zuzen eta bidezkoan banatzen saiatzea biztanleria osoaren artean, okertasun edo bazterkeriarik gabe.
- **Pertsonalizazioa.** Hainbat bakardade daudela eta, gainera, bakardadeak subjektiboak direla jakinda, estrategia honek duen erronka nagusietako bat da jarduketak eta ekimenak diseinatu eta ebaluatzea pertsonen bizi proiektua errespetatuz (guztiak elkarrekiko desberdinak) eta pertsonen autonomia, autodeterminazioa eta ahalduak sustatuz, beren ibilbidearen subjektuak diren heinean, bakoitzaren lehentasunen arabera.
- **Planteamendu komunitarioa eta komunitateko kide izatea.** Hurbiltasun eta errealitate partikularren printzipioen ikuspuntutik, bai pertsona bakoitzarenak eta bere ingurunearenak zein eremu geografiko bakoitzarenak ere, estrategia hau oinarritu behar da pertsonen beren familiekin, bizikidetzaren unitateekin, auzokoekin eta lurraldeekin eraikitzen dituzten lotura eta harreman primario eta antzekoetan. Beraz, lotura, harreman eta identitate (zentzu munduak) esanguratsu horiek sustatu behar ditu, komunitate

ireki eta inklusiboak, eta baita komunitate kide izatearen sentimendua ere. “Komunitatearen zentzu psikologikoak kolektibitate handiago baten kide izatearen esperientzia subjektiboarekin du lotura, fidatzekoa den elkar laguntzarako harremanen sare baten parte izatearen sentimenduarekin” (Sarason, 1974, Marsillas et al egileen laneko aipamenean, 2021). Honela, komunitateak eta komunitatearen parte izateak kidesun sentimenduak eskaintzen dizkiete pertsonari, beste pertsonarekiko identifikazioa, segurtasun emozionala, elkarrekiko eragina, balioak eta baliabideak partekatzearen pertzepzioa, etab. Aldiz, halakorik ez izateak bakardade sentimenduak eragin ditzake (Dalton et al 2001, Yanguas et al egileen laneko aipamenean, 2018). Ondorioz, estrategia honek arreta jarri behar du ere komunitatearekiko loturen eta pertsonen prozesu eta sare komunitarioetako partaidetzaren sustapenean.

Komunitateak eta komunitate horien parte diren erakundeak indartzeko helburua duen estrategia bat izateak dakar, era berean, tokiko planteamendua duen estrategia bat planteatzea. Horretarako, sinergiak eta lankidetzak sustatu behar dira bai toki erakundeekin eta baita elkarteekin, boluntarioen taldeekin eta pertsonaren inguruko sareekin ere.

- **Dibertsitatea eta interseksionalitatea.** Modu irisgarri, lagungarri eta inklusiboan aztertu, errespetatu eta lantzea, genero identitatearen edo orientazio sexualaren, adinaren, gaitasunen, jatorriaren, hizkuntzaren, sinesmenen edo bestelako elementuen araberako desberdintasunak. Eta genero dibertsitatearen, belaunaldi dibertsitatearen, dibertsitate funtzionalaren edo kulturalaren ardatz hauen arteko harremanen arabera ere.
- **Gizarte inklusioa eta partaidetza.** Estrategia, bakardade egoerez arduratzeaz gain, gizarte inklusioaz eta estrategia honen protagonista diren pertsonen partaidetzaz ere arduratzen da. Gizarte bazterketak kausa anitz ditu eta, beraz, inklusioa ere dimentsio anitzeko gaia da. Estrategia honek harremanen bidezko inklusioan jartzen du arreta, baina ez ditu alde batera uzten ere inklusioaren gainerako alderdiak, hala nola hezkuntza, osasun, bizitokia, etab. Horien aldeko apustua egiten du ere beste sistema batzuekin ezarritako zeharkako lanari esker.
- **Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna:** genero ikuspuntua sistematikoki txertatzea, strategiaren zikloko fase eta maila guztietan genero rolek emakumeentzat eta gizonentzat duten inpaktu diferentziala kontuan hartzeko helburuarekin, bakardadeei dagokienez, eta emakumeen ahalduntzea eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko helburuarekin ere, arreta berezia jarrita zaintza eta komunitate harremanetan, arlo hauetan emakumeek ikusezintasuna,

mendekotasuna eta gehiegizko karga sufrizten baitituzte.

Era berean, hauek dira estrategia zuzentzen duten irizpide orokorrak:

- **Bakardadeekin lotutako egoerak eta hauen ondorioak prebenitzeko estrategia bat.** Helburu errealista eta pragmatikoak ezartzeko beharra dela eta ez du zentzurik bakardade sentimenduak errotik desagerrarazten saiatzea, baina estrategia honek bere helburuen artean izan behar du bakardadearen arrisku faktoreak agertzea ahalbidetzen duten egoerak modu nabarmenean murriztea, bai eta bakardadeen larriagotzea saihestea ere. Honela, aldeaz aurretik jardutea izango da lehentasuna, ahal den neurrian eta modu egokian, saihestu nahi den egoera gertatu ez dadin edo, gutxienez, okerrera egin ez dezan edo kalteak ahalik eta gehien murrizten saiatzeko. Prebentzioa, adierazi den moduan, unibertsal, bigarren mailakoa edo hirugarren mailakoa izan daiteke. .
- **Estrategia sektoriala, sektore artekoa eta zeharkakoa.** Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren (eta batez ere lehen mailako arreta eta telelaguntzaren) bakardadeen aurreko erantzukizun eraginkorra geroz eta handiagoa izan dadin lan egitea eta, aldi berean, gizarte zerbitzuen lidergoari esker, beste arlo politiko publiko batzuen inplikazioa bilatzea, arreta berezia jarrita gizarte eta osasun arreta integratuan, sektore arteko eta zeharkako



konpromiso baten esparruan.

- **Partaidetza, baterako ekoizpena eta elkartasuna sustatzen dituen estrategia.** Eragile anitzen artikulazioa aitortu eta sustatzea politika eta esku hartze publikoen erabakian, kudeaketan eta aplikazioan, arreta berezia jarrita komunitate jatorriko hirugarren sektoreko erakundeetan.
- **Eraldaketa digitaleko prozesuetara egokitzen den estrategia eta, beraz, digitalizazioa sustatzen duena.** Kontuan hartuta teknologia gaur egungo gizarteetan duen inplikazioa, eten digitala eta teknologia berriek bakardadeekin lotutako egoera jakinak jorratzeko duten gaitasuna, estrategia honek geruza, alternatiba edo laguntza digitala eskaintzeko helburua izan behar du. Horri esker posible izango da teknologia berriak, plataformak, sareak eta aplikazio digitalak helburu hauetarako sortzea eta erabiltzea: komunikazio telematikoa, gizarte harremanak, datu kantitate handien prozesamendua, adimen artifizial banatua, geolokalizazioa, komunitateen eraikuntza eta, oro har, pertsonen gaitasunen eta konexioen osagarritasuna eta garapena.

Teknologia berriak erabiltzeak dakartzan onurak ikusita, egokitzen da teknologia hauen ekarpenak desberdintzea, konexio sozialei dagokienez, gizarte harremanek eta laguntza sozialak dakartzaten ekarpenetatik. Azken hauek funtsezko elementuak

eskain ditzakete –hala nola zaintzak, afektua arreta...–, baina teknologia bidezko laguntzak, sarritan, ezin du horrelakorik eskaini. Ikuspuntu horretatik, beraz, garrantzi berezia du bi alderdi hauen (konexio sozialak eta laguntza soziala) konbinazioak edo osagarritasunak.

- **Estrategia berritzailea eta eskalagarria.** Ezagutza zientifikoaren eta jardunbide egokien dinamikak sustatzea bakardadeen aurreko jarduketak hobetu eta eraldatzeko, metodologia eta antolakuntza modu berriak baliatuta, eta plastizitatea eta zabaltzeko edo hedatzeko erraztasuna eskaintzen duten irtenbideak bilatuta, pertsona edo lurralde gehiago batu ahal izateko. .
- **Ezagutzaren kudeaketa eta ebidentzian oinarritutako jarduna ardatz dituen estrategia.** Planteatzen den estrategiak ezagutzaren kudeaketa, esku hartzeen, proiektuen edo jarduketan ebaluazioa eta, azken batean, ebidentzia zientifikoa sustatu behar ditu, bere indarraldian zehar eta etorkizunera begira ere.

## 5.5. Jarduketa ibilbideak edo ardatzak

Lehenago aipatu den aldaketaren teoria islatu egiten da, edo zehaztu egiten da, zenbait ibilbide estrategikotan, eta horien arabera artikulatzen dira bai gomendioak eta baita Estrategia osatzen duten konpromisoak eta proiektu bultzatzaileak ere. Ibilbide hauek, dagoeneko Oinarrien Dokumentuan definitu direnak, gorago adierazitako jarduketa motekin batera, Estrategiaren multzoa egituratzen dute.

### a) 1. ibilbide estrategikoa: Sarea eta gobernantza

Gipuzkoan dagoeneko badira eta garatzen ari dira bakardadeari aurre egiteko jarduketak eta, beraz, horiek gauzatzen dituzten eragileak badira ere. Hala ere, hau ez da bereziki definituta, mugatuta eta zehaztuta dagoen jarduketa eremu edo arlo bat. Seguruenik, badira bakardadeen arloko eragile garrantzitsuak izaera hori dutela ez dakitenak eta, bestalde, ia ez dago egonkorak, biziak eta identifikagarriak diren dinamikarik eragileen arteko elkarrizketarako, eskalako ekonomiei onura ateratzeko (zentzu zabalean), erabakiak batera hartzeko eta, azken batean, lidergoa eta gobernantza bultzatzeko.

### b) 2. ibilbide estrategikoa: Elkarrizketa publikoa

Zalantzarik gabe, azken bost urteetan gehiago hitz egiten da eta idazten da bakardadeen inguruan. Hala ere, seguruenik, diskurtso hauek, zenbaitetan, izaten dira:

- Nahasgarriak, terminoen ugaritasun eta inkomunikazio

erlatiboagatik, bai eta fenomenoaz eta haren jorratzeaz arduratzen diren diziplinen arteko lengoia erkiderik ezagatik ere.

- Partzialak: biztanleriaren segmentu jakinei gehiegizko arreta jartzen dietelako beste batzuen kaltetan, edo bakardadeekin lotutako faktore jakinei, beste batzuen kaltetan.
- Estigmatizatzaileak: bakardadea zorrozki lotzen dutelako pertsonen profil edo estereotipo jakinekin eta modu negatiboan karakterizatzen dutelako, zenbaitetan gehiegi sinplifikatuz edo pertsonari errua egotziz.
- Interesdunak: diskurtsoa zabaltzen duten eragileen interes politikoek, komertzialek edo bestelakoek inspiratu eta bultzatutakoak direlako.
- Alarmistak: biztanleriaren kezka sortu nahi duten kontzeptuak gehiegi erabiltzeagatik, analisirako eta jorratzeko bideak eskaini gabe.
- Iragankorrak: gaia azaleko moduan eta modu iragankorrean aztertzeagatik, modan egoteari uzten dion arte.

Ondorioz, ibilbide honetan sartuko diren jarduketek elkarrizketa publiko zorrotza, argitzailea, inklusiboa, positiboa, proposatzailea, ahalduntzailea eta jarraitua lortu nahi dute bakardadeen fenomenoen inguruan.

### **c) 3. ibilbide estrategikoa: Berrikuntza eta zabaltzea**

Identifikatuz goazen bakardadeari aurre egiteko jarduketaren multzoa eta sarea bultzatu, sustatu, zabaldu, hobetu, eraldatu eta ezagutzera eman behar da: garatutako jarduketekin berrikuntza sortzea eta horiek zabaltzea da Estrategia honen helburu nagusia, beraz, hau izango litzateke bakardadeei aurre egiteko Gipuzkoako Estrategiaren funtsezko ibilbidea, lurraldean zehar sakabanatutako jarduketak eta eragileak baitira pertsonak bizi dituzten edo bizi ditzaketen bakardade egoerak aldatzea, hobetzea edo gainditzea lortuko dutenak.

### **d) 4. ibilbide estrategikoa: Ebaluazioa eta ezagutza**

Bakardadeen gaineko jarduketaren efektuei buruzko ebidentzia oparoa den arren, egia da ere arlo honetako ezagutzaren komunitateak zenbait gabetasun dituela komunitatea behar bezain integratua izan dadin edo eskaintzen duen ezagutzaren gorputza behar bezain integratzailea, orekatua, argitzailea eta adostua izan dadin. Horregatik, estrategia honen lau ibilbideetako bat zehaztu da alderdi hauen ebaluazioaren inguruan: estrategia eta bere ekimen eta jarduketak, praktikatik eratorritako ikaskuntza, bakardadeen eta hauen prebentzio eta jorratzearen inguruko ikerketa eta, oro har, ezagutzaren sorreran parte hartzea. Honi esker lortutako jakintzek strategiaren osagai eta oinarri diren uneko ezagutzak zalantzan jarri eta aberasteko aukera emango dute, hartara komunitateari eskainiz esparru kontzeptual hobeen inguruko praktika eta ezaguerak, aldaketaren teoriak, neurketak eta neurketa metodologiak, balorazioa eta ebaluazioa.